

24. UNITATEA

BURUKETAK: NEURRIAK



PROGRAMAZIOA: 24. UNITATEA

BURUKETAK: NEURRIAK

HELBURUAK	JARDUERAK	EDUKIAK	TREBETASUNAK				
			ENTZUM	IRAKUR	ELKAR	MINTZ	IDAZM
<p>-Informazio testu eta deskribapen sinpleen ideia nagusia uler dezake, batez ere testua azaltzen laguntzen duten irudiak baditu.</p> <p><i>Oinarrizko eragiketak ulertu eta irakurtzea.</i></p> <p><i>Oinarrizko buruketak ulertzea</i></p>	<p>Neurrien buruketak irakurri eta ulertu.</p>	<p><i>Neurriak: kiloak, metroak, minutuak, €ak...</i></p> <p><i>Buruketa enuntziatuak</i></p>					

PROGRAMAZIOA: 24. UNITATEA

BURUKETAK: NEURRIAK

1. JARDUERA

Irakurri buruketa hauek eta erantzunak eman:

Fruta kamioiak 188kg laranja ekarri ditu. Fruta saltzaileak kaxetan jartzen laguntzeko eskatu dizu. Hiru kaxa neurri daude: handia, ertaina eta txikia. Kaxa handian 5 laranja sartzen dira, ertainan 20 eta txikian 6. Kilogramo bakoitzean 5 laranja sartzen badira, zenbat kaxa handi, zenbat ertain eta zenbat txiki beteko dituzu?




PROGRAMAZIOA: 24. UNITATEA

BURUKETAK: NEURRIAK

2. JARDUERA

Irakurri buruketa hauek eta erantzunak eman:

Lasterketa saio bat egin duzue eskolan. Lasterketako zirkuitoak 1km eta 200m neurtzen du. Lehengo korrikalariak 100m egin ditu minutuko, bigarrenak 80 metro minutuko eta hirugarrenak 60m minutuko. Zenbat denbora behar izan du korrikalari bakoitzak lasterketa egiteko?



PROGRAMAZIOA: 24. UNITATEA


BURUKETAK: NEURRIAK

3. JARDUERA

Irakurri buruketa hauek eta erantzunak eman:

Gipuzkoa hobeto ezagutzeko bidaia bat antolatu nahi duzue gelako ikasleen artean. Autobusa alokatu behar duzue, Zarauztik irten eta Zarautzera itzultzeko. Autobusak 25€zm kobratzen ditu kilometroko.

Begira ezazu mapa honetan eta pentsatu zer bidaia egin dezakezuen 52,50€rekin.



Txirrindulari batek 20 km egiten baditu orduko, zenbat denbora egingo du Zarauztik Tolosara joan eta etortzen?

Kotxe batek 70 km egiten baditu orduko, zenbat denbora egingo du Zarauztik Oñatira joaten?

PROGRAMAZIOA: 24. UNITATEA

BURUKETAK: NEURRIAK

4. JARDUERA

Irakurri buruketa hauek eta erantzunak eman:



Herriko jaiak direla eta, gelako ikasle guztiek alkandora eta txapela gorria eramatea pentsatu duzue. 26 zarete gelan. 8k badute alkandora gorria etxean eta 5ek txapel gorria dute. Beste guztiontzat alkandora eta txapela erosi behar duzue.

Alkandora bat egiteko jostunak 2m oihal behar ditu, oihal metroak 2€ balio ditu eta jostunaren lanak 9€ alkandorako. Txapelak 5€ balio baditu, zenbat ordaindu beharko du alkandora eta txapela behar duen ikasleak? Eta txapela soilik behar duenak? Guztira zenbat diru eraman behar duzue dendara?